

DBE: Diru-sarrerak Bermatzeko Errenta EPO: Etxebizitzarako Prestazio Osagarria

Eskaera berria egitea, espedientea berritzea edo berrikustea

Zer Dira DBE eta EPO?

DBE: Diru-sarrerak bermatzeko errenta

Hileko diru-laguntza bat da, baliabide nahikoa ez duten familien beharrei erantzuteko.

Laguntza hori bateragarria da laneko diru-sarrerak izatearekin edo beste zeinahi diru-laguntza kobratzearekin: langabezia-prestazio edo -subsidioa, pentsioak eta abar.

EPO: Etxebizitzarako Prestazio Osagarria

Etxebizitza alokatzeko laguntza osagarria da.

DBEren titular direnek bakarrik kobra dezakete.

Prestazioaren titularrak sinatu behar du eskaera, eta hark frogatu beharko du errolda eta benetako bizilekuaren baldintza betetzen duela. Beste baldintza eta betekizun guztiak onuradunek ere bete behar dituzte, hau da, bizikidetzako unitateko kide guztiak.

BU: Bizikidetzaren unitatean

Bizikidetzaren unitatean (BU) sartuko dira etxebizitza berean bizi diren pertsona guztiak, baldin eta harreman hauetakoren bat badute:

- › Senar-emazteak, izatezko bikoteak edo ezkontza-harremanaren pareko beste edozein harreman iraunkor dutenak.
- › Adopzioa.
- › 4. mailara arteko odolkidetasuna dutenak (aita, ama, aitona-amonak, seme-alabak, birramona/birraitona, izeko-osabak, lehengusua/lehengusina, birbiloba, anai-arrebak) edo 2. mailara arteko ahaidetasuna dutenak (aita, ama, aitona-amonak, seme-alabak, bilobak, anai- arrebak).

Dena den, ez ohiko zenbait kasutan, lotura hori izanagatik ere bizikidetzaren unitate desberdinekoak izan daitezke, nahiz eta etxe berean bizi.

DBE edo EPO lehen aldiz eskatu behar baduzu, edo dagoeneko onartu dizuten espedientea berritu edo berrikusi behar baduzu.

Gomendatzen dizugu Lanbideren erabiltzaileentzako arreta telefonora deitzeko, jakin dezazun zein den biderik egokiena zure posta-kodearen arabera dagokizun bulegoan lagun zaitzaten. Telefono horretan eskatu ahal izango duzu, behar baduzu, edozein izapide egiteko aurretiko hitzordua.

Hitzorduaren egunean, karpeta honetan dauden derrigorrezko inprimaki guztiak aurkez ditzakezu Lanbideren sarrera-erregistroan, eta, horiekin batera, zure egoeraren arabera beharrezkoak diren agiriak ere bai karpetan zehaztuta dituzu horiek ere, agirien zerrendan.

Aurkeztutako eskabidea osorik ez badago, Lanbidek falta diren agiriak eskatuko dizkizu, idatziz, eta 10 eguneko epea emango dizu (larunbatak, igandeak eta jaiegunak kontatu gabe) zure enplegu-bulegoan aurkezteko. Eskatutako agiriak epe barruan aurkezten ez badituzu, zure eskabideari uko egin diozula ulertuko da.

Informazio orokorra
edo aurretiko hitzordua eskatzea:

945 160 600

Asteleheneretik ostiralera 08:00etatik 19:00etara.
Uztailean eta abuztuan 08:00etatik 18:00etara.

Inolaz ere ez da espediente bati buruzko
informazio pertsonalik emango telefonoz.

Informazio garrantzitsua DBE/EPO kobratzen ari diren guztientzat

Bai eskaera aurkeztean bai DSBERen hartzailea den denbora osoan zehar bete beharreko baldintza eta betebeharrak guztiak.

Bai titularrak bai lanerako adina duten bizikidetzaren unitateko kideek (salbuespenak salbuespen) lan egiteko prest egon behar dute. Prest egote horrek, honako obligazio hauek dakartza:

- › Enplegu-eskatzaile gisa izena emanda egotea etengabe (DARDE, enplegu-eskatzailearen txartela).
- › Lanerako baimenik ez dutenek Lanbideren beste zerbitzu batzuetako eskatzaile gisa izena emanda egon beharko dute.
- › Lanean dihardutela DBE osagarria jasotzen dutenek ere alta emanda jarraitu behar dute, enplegua hobetzeko.
- › Ezin diote uko egin lan egoki bati, ezta lan batean borondatezko baja hartu ere.
- › Ezin dute beren borondatez lanaldia murriztu edo eszedentzia hartu.

Eskatu egin behar da edozein unetan titularrari edo bizikidetzaren unitateko edozein kideri egokitu da-kikeen eskubide edo prestazio ekonomiko oro: langabezia-prestazioa, subsidioak, kotizaziopeko edo kotizazio gabeko pentsioa, mantenu-pentsioa dibortzio-kasuetan, herentziak eta abar. Ikusi “Eskubideak baliatzeko betebeharraren agiria ERE-DBE-026”.

Eskura dituzten baliabideak arduraz kudeatu behar dituzte, egoera ekonomikoa edo bazterkeria-egoera larriagoa bihur ez dadin.

Administrazioaren aurrean agertu eta harekin lankidetzan aritu behar dute, hori eskatzen bazaie.

Ezinbestekoa da Gizarteratze Aktiboko Hitzarmenean jasota dauden eta Lanbidek proposatzen dituen prestakuntza-ekintza oro eta enplegarritasuna hobetzeko ekintza guztiak egitea; hala ba-dagokio, Gizarte Zerbitzuek, Etxebizitzak, Osasunak edo Hezkuntzak ere proposatuko dituzte ekintzak.

Etxebizitza bakoitzeko gehienez bi DBE kobratu daitezke, DBERen araudian jasotako egoera jakin batzuetan. Ostatu kolektiboetan izan ezik, 2010/147 Dekretuaren 6. Artikuluak xedatutakoaren arabera.

DBE/EPO kobratzen ari bazara, baina zure egoera aldatu egin dela jakinarazi nahi baduzu

“Gertakariak jakinarazteko inprimakia ERE-DBE-007” bete behar duzu, eta zure enplegu-bulegoan erregistratu. Lanbideren edozein bulegotan edo web orrian duzu eskura inprimakia. Informazio-telefonoan esango dizute aurrez hitzordua eskatu behar duzun ala ez.

Gogorarazten dizugu jasotzaile guztien obligazioetako bat dela prestaziorako eskubidea aldatzea, etetea edo azkentzea ekar dezaketen aldaketa eta gertakari guztien berri ematea Lanbideri, sortzen diren unetik zenbatzen hasi eta gehienez ere hamabost egun naturaleko epean. Honako hauek dira aldaketarik ohikoenak:

- › Helbidea edo bankuko kontua aldatzea.
- › Bizikidetz-unitateko edozein kidek Euskal Autonomia Erkidegotik kanpo egindako irteerak, iraupena edozein dela ere. (Ateraldiaren aurretiko jakinarazpena).
- › Bizikidetz-unitatea osatzen dutenengan izandako aldaketak.
- › Lan-jarduera hastea edo amaitzea.
- › Aldaketak diru-sarreran edo ondarean: pentsio, subsidio edo edozein motatako prestazio berri edo mantenu-pentsioa kobratzea; dohaintzak edo herentziak; ibilgailuak erostea edo saltzea, eta abar.